

# Euskal Sagardoa, "mugaz gaindiko" Jatorri Izendapena duen lehen edaria European

Noaua Aldizkaria 2024ko urt. 19a, 12:58



Argazkia: Sagardoa Route.

"Euskal Sagardoa" aurrerantzean, "Euskal Sagardoa/Sidra del País Vasco eta Cidre du País Basque" jatorri izendapena izatera igaroko da. Jatorri deitura honek sei urte bete dituen honetan, "Zuberoako, Behe Nafarroako eta Lapurdiko sagar eta sagardogileek konpromisoa azaldu dute Jatorri Izendapeneko kide izateko", sustatzaileek ostiral honetan Donostian egindako agerraldian berri eman dutenez.

Honenbestez, "Euskal Sagardoa Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabatik, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoara ere zabalduko da beraz, eremu geografikoa handitzeaz gain, mugaren bi aldeetako sagar motak ere Jatorri Deituran sartzea adostu da araudi bakarren barruan".

Pauso garrantzitsu honekin, "Piriniotako mugaz gaindiko Jatorri Izendapena duen lehen edaria izango da Euskal Sagardoa. Araudi berdina izateaz gain, kudeaketa eta zertifikazioa ere bateratuta egitea adostu dute eta horretarako HAZI-ko Kontrol eta Zertifikazio arloa dagoeneko hasia da INAOrekin harremanetan Frantzian ere homologatua izateko eta Jatorri Izendapenaren zertifikazioa HAZIk egin dezan".

## Lehenak

Europa mailan "ez dago mugaz gaindiko araudi bakarreko bestelako Jatorri Deiturarik eta hau izango da ezaugarri honekin jaioko den lehena". Akordio honen berri eman diote Europar Batasunari eta iragarri dutenez, "tramitazio guztiak martxan jarri eta izapide administratiboa ixtear da".

Europak oniritzia eman bezain laster, "Nafarroako sektorea Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako kide izatera pasako da. Nafarroako sagar eta sagardogileak ere Euskal Sagardoa sartzeko prozedurari heltzeko konpromisoa hartua dute Kontseilu Arautzaileak, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak".

Albiste garrantzitsu hau emateko egin dute ostiral honetako agerraldia, Eusko Jaurlaritzak Donostian duen ordezkaritzan. Hitzorduak Arantxa Tapia, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburua; Joseba Erramundeguy, Euskal Herria Hirigune Elkargoko Mugazgaindiko, Europako eta Nazioarteko kontseilaria; Jose Mari Aierdi, Nafarroako Landa Garapen eta Ingurumen sailburua, Unai Agirre, Euskal Sagardoa Jatorri Izendapeneko zuzendaria eta Bixintxo Aphaul, Domaine Bordatto-ko sagardogilea batu ditu, foru aldundietako eta sagar eta sagardoaren sektoreko hainbat ordezkarekin batera.

USURBIL



Ikusienak



Badator Gazte Eguna

Noaua Aldizkaria ots  
19, 18:13

Usurbil



Aitzaga Kultur Elkartearen 30. urtemuga jaialdirako txartelak salgai

Noaua Aldizkaria ots  
19, 15:52

Usurbil



Erromeria gau bizia bart Aginagako Eliza Zaharrean

Noaua Aldizkaria ots  
18, 14:44

Aginaga



Haur Eskolaz hausnartzeko deia egin du ama talde batek

Noaua Aldizkaria ots  
19, 08:56

Usurbil



Umore eta hausnarketa ez-tandaren ondotik, Kulturaldia azken txanpara begira

Noaua Aldizkaria ots  
19, 13:11

Usurbil



Zenbait udal aholkularitza zerbitzu gaur

Noaua Aldizkaria ots  
19, 08:00

Aginaga

Noaua Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil  
Tf: 943 360 321 | erredakzioa@noaua.eus  
Codesyntaxek garatua



HONI BURUZ

LEGE OHARRA

PUBLIZITATEA

ARAUAK

HARREMANETARAKO

RSS



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala



Gertuko informazioa, euskaraz

AIARALDEA

AIKOR

AIURRI

ALEA

AMEZTI

ANBOTO

ANTXETA

ATARIA

BALEIKE

BARREN

BEGITU

DEUSTUALDEA PREST

ERLO TELEBISTA

ERRAN

EUSKALERRIA IRRATIA

GEURIA

GOIENA

GOIERRI TELEBISTA

GUAIXE

HIRUKA

KARKARA

KRONIKA

MAILOPE

MAXIXATZEN

NOAUA

OIZMENDI TELEBISTA

PLAENTXIA

TXINTXARRI

URIOLA

UZTARRIA

Gurean      Plazanbazan      Ttap  
Tokikom publizitatea